

HERRITARREN PARTE- HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2015/11/10

Saila

Laburpena

Alkatetza	Auzokide batek auzoan ludoteka bat zabaltzeko eskatu du.
Alkatetza	Bar Nuevo tabernaren atzean umeentzako jolastokia jartzeko eskatu du.
Alkatetza	Ubitxa 23ko bizilagun batek inguruko erretena garbitzeko eskatu du.
Obrak	Kexatu da ikuspen eskasa dagoela Urkiko kioskoaren pareko oinezkoentzako pasabidean.
Obrak	Polonia Etxeberria 1eko eraikinaren izkinaren pareko bi harmailak kentzeko eskatu dute.
Obrak	Polonia Etxeberria 14, 16 eta 18aren pareko barandak egoera txarrean daudela kexatu da.
Obrak	Kexatu da Mutiola kalea oso estua dela eta bi aldeetan eta espaloiairean gainean aparkatzen dituztela autoak, eta horrek errepidetik ibilarazten dituela oinezkoak.
Obrak	Errekatxu kalean asfaltoa egoera txarrean dagoela salatu du.
Obrak	Gure Baztarra elkartearen gaineko plazatxoak konpontzeko eskatu du.
Obrak	Potosioren etxearen proiektuari buruz argibideak eskatu ditu.
Obrak	Eskatu du geriza-gune bat sortzeko Urki Kurutzekua parkean. Bere esanetan, udan oso bero handia egiten du bertan.

HERRITARREN PARTE- HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2015/11/10

Saila

Laburpena

- Obrak** Auzokide batek Ubitxa 16aren pareko oinezkoentzako pasabidea goratzeko eskatu du.
- Obrak** Argibideak eskatu ditu Bidebarrietatik Errekaturako pasabideaz.
- Obrak** Errekaturako auzokide batek esan du Portaleako igogailuak ez diola eremu horri zerbitzurik ematen, hura erabiliz gero, itzulingurua eman behar dutelako bertako auzokideek.
- Obrak** Errekaturako auzokide batek esan du ezinezkoa dela espaloietatik ibiltzea horiek okertuta daudelako.
- Zerbitzuak** Kexatzen da egoera txarrean dagoela Urkitik Polonia Etxeberriara doan igogailuaren irteeran dagoen pasabidea. Espaloi zati bat falta dela esan du.
- Hirigintza** Urki 6ko hainbat bizilagunek patiorako sarbide bat egiteko eskatu dute, igogailua eraiki ondoren ezin direlako patiora sartu.
- Hirigintza** Eskatu du hobeto kontrolatzeko Bar Nuevo tabernaren ondoko mekanika-garajearen jarduera. Beraren esanetan, ke handia pilatzen da han egunero.
- Udaltzaingoa** Ubitxa 16ko bizilagun batek txakur bat San Kristobaleko tabernan lotu gabe egoten dela salatu du.
- Udaltzaingoa** Kexatu da autoak zenbaitetan aparkatzen dituztela Polonia Etxeberria 26aren atzealdeko ibilgailuentzako pasabidean.

HERRITARREN PARTE- HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2015/11/10

Saila

Laburpena

Udaltzaingoa

Urkiko eroskiko pasabidean dauden eskailerak ondo ixteko eskatu du.

Udaltzaingoa

Salatu du gidariek gaizki aparkatzen dituztela autoak Urki 10, 12 eta 14aren parean.

Udaltzaingoa

Salatu du Txaltxa-Zelaitik Urkira bitarteko eremua beldurgarria dela eta trapitxeoak egiten direla bertan.

Udaltzaingoa

Kexatu da zenbaitek zabor-erakundeetatik hondakinak ateratzen dituztela, apurtu eta erakundetik kanpo uzten dituztela nahi ez dituztenak, eta horrela ingurua zikintzen dutela.

Udaltzaingoa

Kexatu da arriskutsua dela Arikizatik Urtzailerako irteera. Galdetu du ea semafororik jartzerik dagoen.

Udaltzaingoa

Kexatu da autoak zenbaitetan aparkatzen dituztela Errekatxuko bidean eta ikuspena murrizten diéttela oinezkoentzako pasabidetik bidea zeharkatu behar duten oinezkoei.

Zerbitzuak

Errekatxu 13ko bizilagun batek eskatu du berriro margotzeko desgaitasuna duten gidariei erreserbatutako aparkalekua; horretaz gain, kexatzen da txartelik gabe aparkatzen duela jendeak.

Zerbitzuak

Errekatxu 13ko bizilagun batek esan du hustubide-kutxatilararen estalkia falta dela eta, horren ondorioz, putzuak sortzen direla eta ibilgailuek pasatzean ziprztindu eta zarata ateratzen dutela.

Zerbitzuak

Errekatxuko kaleen garbitasun falta dela eta kexatzen da.

HERRITARREN PARTE- HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2015/11/10

Saila

Laburpena

Zerbitzuak

Errekatxuko iturria garbitzeko eskatu du.

Zerbitzuak

Kexatu da kale-argi gutxi dagoela Ubitxan.

Zerbitzuak

Kexatu da Portaleako igogailuak 22:00etan uzten diola funtzionatzeari, 23:00etan izan beharreen.

Zerbitzuak

Auzokide batek proposatu du igogailuak gau osoan ere funtziona dezala, horrek auzokideek ordaindu behar izatea ekarriko balu ere.

Zerbitzuak

Auzokide bat kexatu da argiztapen eskasa dagoela Urki Kurutzekua parkearen aldean.

Zerbitzuak

Eskatu du baranda batez edo antzeko zerbaitez ixteko Urki Kurutzekuako erdiko eskailerak, arriskutsuak dira eta.

Zerbitzuak

Eskatzen su komun publikoa jartzeko Urki Kurutzekuako parkearen inguruetan. Bere esanetan, jendeak etxeen eta harrasken ostean egiten duela txiza eta kaka.

Zerbitzuak

Kexatzen da Errekatxuko iturrian ur-jarioa dagoela egoera txarrean dago eta.

Zerbitzuak

Kexatu da egoera txarrean dagoela Aranetik Errekatxura doan bideko espaloia eta baldosak apurtuta daudela.

Zerbitzuak

Kexatu da zaharkitua dagoela bidearen bukaeran dagoen eserlekua.

HERRITARREN PARTE- HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2015/11/10

Saila

Laburpena

- Zerbitzuak** Kexatzen da oso hazita dagoela Ubitxa 8aren parean dagoen zuhaitza, eta horregatik eragozpenak sortzen dituela.
- Zerbitzuak** Eskatu du jaso daitezela Ubitxa 10, 12 eta 14aren parean moztutako sastrakak.
- Zerbitzuak** Argiztapen handiagoa eskatu dute Txaltxa-Zelaiko lorategien parean.
- Zerbitzuak** Ubitxa 21 beheko eskuineko bizilagun bat kexatzen da etxean hezetasun-arazoak irten zaizkiola, espaloiak eragindako jarioen ondorioz (espaloia beraren leihoaren arrasean atxikia dago).
- Zerbitzuak** Eskatu du eserlekuen egoera hobetzeko Urkiko autopistaren zubiaren azpian dagoen parkean.
- Zerbitzuak** Eskatu du erakargarriago egin dadila Urkiko ikastetxerako sarrera.
- Zerbitzuak** Eskatu du erretzeko debekuaren pegatina jartzeko igogailu publikoetan.
- Zerbitzuak** Salatu du Eroskiko pasabidea beti egoten dela zikin kale-zurrutaren ondorioz.
- Zerbitzuak** Kexatu da aireztapenik ez duela Urkiko kioskotik Polonia Etxeberriara doan igogailuak.
- Zerbitzuak** Urkiko 16. Zenbakiaren parean ur-hargunea jartzeko eskatu du.
- Zerbitzuak** Eskatu du garbitu daitezela Urkiko kioskotik Polonia Etxeberriara doazen eskailerak.

HERRITARREN PARTE- HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki

DATA: 2015/11/10

Saila

Laburpena

Zerbitzuak	Salatu du lokailuak lokatuta dituela Polonia Etxeberria 26aren atzealdean dagoen barandak.
Zerbitzuak	Eskatu du garbiago egon daitezela igogailuak.
Zerbitzuak	Kexatu da kaleak ez daudela garbi.
Zerbitzuak	Utzikeriaz zer egoeratan dagoen auzoa salatu du.
Zerbitzuak	Eskatu du zuhaitzak inausteko Sansaburutik Errekatxura doan aldapako espaloian.
Zerbitzuak	Salatu du labaingarria dela Sansaburutik Errekatxura doan aldapa.
Zerbitzuak	Iturriaren ondoko Errekatxuko horma zikin dagoela kexatu da.
Zerbitzuak	Eskatu du Mutiolako parkeko jardineretako landareak aztertzeko.
Zerbitzuak	Eskatu du Errekatxurako igogailura joateko bidean dagoen horma konpontzeko.
Zerbitzuak	Bolinguako eskaileretako lirdinga garbitzeko eskatu du.